

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

Zenbakia: 01/2015

Eguna: 2015/01/28

Ordua: 20:00

UDAL OHIKO OSOKO BILKURAREN AGIRIAALKATEA:

Alvaro Villar Fernández.

ZINEGOTZIAK:

Yolanda Alkorta Gómez.

Asier Larrañaga Etxeberria.

Miren Itziar Aizpurua Antía.

Maria Carmen Arregi Agirre.

Francisco María Gabarain Gárate.

Asier Zamakola Ibaibarriaga.

ETORRI IZAN EZ DUTENAK:

Inor ere ez.

IDAZKARI KONTUHARTZAILEA

Begoña Gorritxategi Osa.

Aizarnazabalen bi mila eta hamabosteko Urtarrilaren hogeita zortzian 17an, Aizarnazabalgo Udaletxeko Areto Nagusian, arratsaldeko zortziak direnean eta Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzeko duen 7/1985 Legearen 46.2.c) artikulua agintzen duena kontutan hartuz, Alkateak, hasera ematen dio Udal Osoko Bilkura honi, aurrez konprobatuz, Korporazioko kideen gutxiengo kopurua eta Alkate eta Idazkaria bertan daudela.

1. Azkenengo Udal Osoko Bilkuraren agiriaren zirriborroa onestea hala badagokio.
2. Alkatearen Dekretuen berri ematea.
3. Ordainketa eta diru kontuak.
4. 2013ko Kontu Orokorra.
5. Gipuzkoako Lurralde historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrari atxikitzea.
6. Erroldaren datuaren lagapenari buruzko hitzarmena MUGi sistema.
7. Bilduk aurkezten duen Deklarazio instituzionala Abokatuen atxiloketei buruzkoa.
8. Galdera eta eskeak.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

1. AZKENENGO UDAL OSOKO BILKURAREN AGIRIAREN ZIRRIBORROA
ONESTEIA HALA BADAGOKIO.

Alkate Jaunak galdetzen die bertaraturako Jaun Andreei, ea 12/2014 zenbakia daraman 2014ko Abenduaren 17an burututako, Udal Osoko Bilkuren Agiria onartzeko, ados dauden.

Itziar Aizpurua Zinegotzi andereak adierazten du, ondorengo jasotzea nahi duela agiri honetan, zere aipatutako agiriak ez zelako jaso egin zituen adierazpen hauek: “9. puntuan: Galdera eta eskeetan esan zuela, 5. Puntuan Gizarte larrialdietarako laguntzaren diru laguntza lerroaren indartzeko eskaera mozioa eskatzea erabaki zuela Udal Osoko Bilkurak eta 3 puntuan onartu zela udalak egin zuen afarirako ordainketa, baino bi puntu hauetan kontraesana dagoela, zeren Udal korporazioko kideek eta langileek badutela ahalmena bere kabuz faktura ordaintzeko eta gizarte larrialdian dagoenak ez”.

Idazkariak galdetzen dio eta erabakiaren edukia aldatu zen, eta Itziar Aizpuruak erantzuten dio ezetz, beraz agiri honetan jasota geratzen da Itziar Aizpurua Zinegotzi andereak 2014ko abenduaren Udal Osoko Bilkuran egin zuen adierazpena.

2. ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak eman dituen ondorengo Dekretuen berri eman zen:

| Zenbakia | Edukia |
|-----------------|---|
| 72/2014 | Obra Baimena. Espedientea 21/2013. Manuel Gorriti Arruti Jauna. |
| 73/2014 | Lehen erabilera baimena. Espedientea 11/2011. Antonio Urkizu Salsamendi J. |
| 74/2014 | Faktor Energía. Tasa likidazioa 2014-3º hiruhilabetekoa. |
| 75/2014 | Obra baimena. Espedientea 09/2014. Pedro Arizaga Ochoteco Jauna. |
| 01/2015 | Naturgas Energía. Tasa likidazioa 2014-4º hiruhilabetekoa. |
| 02/2015 | Kirol Elkarteari diru laguntza 1.000 euro. |
| 03/2015 | Hornitzaileek Aizarnazabalgo Udalarri egiten dizkieten faktura elektronikoak jasotzeko prozedura arautzeari buruzkoa. |
| 04/2015 | Aizarnazabalgo Zehatz auzoko sarrera hobetzeko eraikitze egitasmoaren Segurtasun eta Osasun Planaren onespina. |

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

3. ORDAINKETA ETA DIRU KONTUAK.

Ondorengo fakturak onartzea erabaki zen aho batez:

| FAKTURAK | | |
|------------------------|--|-----------|
| Izena | Kontzeptua | €. |
| MAYKOLUX | Gabonetako argiak. | 2.964,00 |
| Aizarnazabal Koop. | Bide bazterrak. Faktura 2014-0024 | 2.622,31 |
| Aizarnazabal Koop. | Bide bazterrak. Faktura 2014-0025 | 621,46 |
| Bidera. | Iragarkiak. Faktura I-144272 | 955,89 |
| DIAZ S.L. | Biotrituradora. Faktura 140746 | 7.200,00 |
| Gipuzkoako Urak. | Uraren kalitatea neurtzea 2015 urtean. | 1.594,48 |
| Gipuzkoako Urak. | 2015eko 1º zatia. Ura eta Arazketa. | 15.261,59 |
| Ekain. | Epaitegiko ordain sariak. | 1.794,43 |
| Trat. Antidesliz. Ziur | Kaleetan egin den ez irristatzeko tratamendua. | 2.013,44 |
| Iruclima | Klimatizazioaren mantenimentua. | 1.381,82 |
| Bulegoak. | Faktura 150193 | 873,62 |
| Toldos Alzibar | Basakaitz eskolako aterpea. Faktura zenbakia 1 | 16.380,98 |
| Toldos Alzibar. | Konponketak. Faktura zenbakia 2. | 1.851,30 |
| Excavaciones EKIN | Faktura 1. Obra: Larraxko ura 2º fasea. | 12.100,00 |
| Excavaciones Ezkerra | Faktura 45. Obra. Larraxko ura 2º fasea. | 30.473,85 |

4. 2013KO KONTU OROKORRA.

2013ko Kontu Orokorra, Kontuen Batzorde Bereziak 2014ko irailaren 17an baiezko irizpidea eman ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Aizarnazabalgo Udaletxeko Iragarkien Oholean argitaratu zen 2014ko irailaren 23an. Kontu Orokorra ikusgai egon den epean, ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu, hau dela eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Legearen Testu Bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 R.D.L.aren 212.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, zera erabaki zen aho batez: 2011ko Aizarnazabalgo Udalaren Kontu Orokorra onartzea.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

**5. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU
ADMINISTRAZIOAREN EREMUAN FAKTURA ELEKTRONIKOEN SARRERA
PUNTU OROKORRARI ATXIKITZEA.**

Kontutan izanik, 2014ko abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako lurralde historikoko Foru Administrazioako faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrari eta fakturen kontabilitate erregistroari buruzko alderdi jakin batzuk arautzen dituenak. Udal honek, zera erabakitzen du aho batez:

LEHENA: AIZARNAZABALGO UDALA atxikitzea Gipuzkoako lurralde historikoko Foru Administrazioako faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrari.

BIGARRENA: Udal honetako Alkatea den Alvaro Villar Fernández Jauna ahalmentzea egin behar diren tramite administratibo guztiak egiteko gai hau gauzatzeko.

**6. ERROLDAREN DATUAREN LAGAPENARI BURUZKO HITZARMENA
MUGI SISTEMA.**

Kontutan izanik, GGLA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz eta Hernaniko Udalek osatutako kontsortzio bat del, eta bere xedea Lurralde Historiko osoa kohesionatzea dela, garraio eredu jasangarriaren bidez, eta mugikortasunaren alorrean herri administrazioen helburuak babestea. Bere zeregina, Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarren mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa sustatzea da. Banan banako botazioa egin ondoren, Udal Osoko Bilkurak zera erabakitzen du aho batez:

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

LEHENA: AIZARNAZABALGO UDALAK hitzarmena sinatzea GGLArekin. Hitzarmen honen xedea da GGLAk taldeentzako mugi txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egoteko beharraren eskakizunaren gainean datu pertsonalak erabiltzeko baldintzak ezartzea, baita GGLak mantendu behar duen konfidentzialtasun esparrua ezartzea ere. atxikitzea Gipuzkoako lurralde historikoko Foru Administrazioako faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrari.

BIGARRENA: Udal honetako Alkatea den Alvaro Villar Fernández Jauna ahalmentzea egin behar diren tramite administratibo guztiak egiteko gai hau gauzatzeko.

7. BILDUK AURKEZTEN DUEN DEKLARAZIO INSTITUZIONALA
ABOKATUEN ATXILOKETEI BURUZKOA.

Gai ordenarekin jarraituz, ondorengo Deklarazio instituzionala irakurri zuen Alkateak, eta banan banako botazioa egin ondoren, Udal Osoko Bilkurak du aho batez onartzea erabaki zuen:

“2015eko urtarrilaren 12an Guardia Zibilak 16 euskal herritar atxilotu zituen. Atxilotuen gehienak abokatuak ziren, euskal presoek abokatuak, hain zuzen ere. Giza oinarriko eskubideen kontrako eraso oso larria izanda, instituzio honek adierazpen hau onartzen du:

1.- Atxiloketa hauek Euskal Herrian irekitako bake, demokrazia eta askatasunaren bide berriaren kontrako eraso da. Estatuaren itxikeriak eta bortizkeriak euskal jendartearen bake eta normalizazio politikorako borondate argia zapuztu nahi dute.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

2.- Abokatuak funtzio berezia eta ezinbestekoa dute pertsonen giza eta defentsa eskubideak babesteko; are gehiago eredu demokratiko batean. Kasu honetan presoen eskubideen defentsan aritzen diren abokatuak atxilotu ditu Guardia Zibilak. Presoei dagozkien giza eskubideen urraketen lekuko zuzenak dira eta abokatuen atxiloketa hauek defentsarako eskubidea ere urratu dute.

3.- Estatu espainolak, berriro ere, bere izaera ez demokratikoa erakutsi du. Urtarrilaren 10ean milaka euskal herritarren aldarrikapenari jaramonik ez eta oinarrizko eskubideak urratzearen aldeko apustua egin du”.

8. GALDERA ETA ESKEAK.

Ez dago.

Eta beste gairik ez zegoela ikusi ondoren, Udal Osoko Bilkura hau gaueko bederatzietan amaitu zen eta Idazkaria naizenez ziurtatzen dut Alkatearen On Iritziarekin.

O.I.

Alkatea,

Idazkari-kontuhartzailea,

